

BOST MINUTUKO LASAIALDIA

Testua eta ilustrazioak: JILL MURPHY

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorrean koadernatua. 28 x 23,5 cm. 32 or. 15 €.

CHILDREN'S BOOK AWARD 1986 SARIAREN FINALISTA
PARENTS MAGAZINE BEST BOOK FOR BABIES 1987 SARIA

Bost minutuko lasaialdia (euskaraz)
ISBN 978-84-7681-938-8. Kalandraka - Pamiela.

Cinco minutos de paz (gaztelaniaz)
ISBN 978-84-8464-240-4. Libros para soñar.

Cinco minutos de paz (gallegoz)
ISBN 978-84-8464-241-1. Tras os montes.

Cinc minuts de tranquil·litat (katalanez)
ISBN 978-84-8464-242-8. Llibres per a somniar.


*Itzel andreak erretilu bat hartu zuen arasatik,
eta haren barruan jarri zituen teontzia, esne-pitxerra,
bere katilu-platertxo kutunak, ogi txigortua
marmeladarekin eta bezperan sobratutako pasteltxo bat.
Egunkaria sakelari sartu zuen eta aterantz joan zen
ezari-ezarian...*

Lehen aldiz argitaratu zela 30 urte betetzen diren honetan berreskuratu du KALANDRAKAK Jill Murphy-ren album hau. Heldu asko identifikatuko dira berarekin; izan ere, "Bost minutuko lasaialdia" obrak ume txikien ardura dutenen desira ia iritsiezin bat aldarrikatzen baitu: une batez mundutik bakartu ahal izatea, umeek tarte hori eragotzi gabe beren kezka, ustekabeko burutazio eta espontaneotasunez.

Azpimarratzekoa da animalia sendoak aukeratzea, elefanteak, halako kontakizun jostagarri eta maitagarri horretako protagonista gisa. Itzel andreak eta haren umeek egokiro hartzen dute giza itxura eguneroko janzkeraz eta etxeko giroan egunaren hasieran. Pertsonaien adierazkortasunak sentimendu sail zabala islatzen du: amaren etsipen, haserre edo eroapenetik pakidermo gazteen damura edo suhartasun xalora, energiaz gainezka dabiltzala.

Izan ere, Itzel andreak minutu baketsu eta lasai batzuk besterik ez du nahi, bere bainuontzi bero, apartsu eta pindartsuan.

Bizitza bera bezain erreala den istorio bat, naturaltasunez, umorez eta txeraz kontatua.



- **Gala:** familia; haurtzaroko kezkak.
- **Gomendatutako adina:** 3 urtetik aurrera.
- **Alderdi azpimarragarriak:** giza itxurako animaliak; etxeko giroa; anai-arreben arteko harremana; eguneroko bizitza.

Jill Murphy

(Londres, 1949)

Haurtzarotik izan zuen literaturarako eta marrazkigintzarako zaletasuna. Londreseko zenbait arte-eskolatan ikasi zuen. "Sorginik maltzurrena" izeneko saga izan zen haren lehen lan arrakastatsua, milioika ale salduz eta haren bost liburukitan oinarritutako telebista-sail bat eta guzti. "Bost minutuko lasaialdia" obrako pertsonaiek ere ikus-entzunezko bertsioa izan dute. Beste zenbait ezagutzaren artean, Kate Greenaway domina jaso du 1980, 1987 eta 1994an, Parents Magazine Best Book for Babies saria eta Smarties Book, Sheffield Children's Book Award eta Gateshead Gold Award sariak ere bai.

